

**BIZKAITARRAI  
BIZKAIERAZ  
86n. ZENBAKIA  
ORRILLA  
(MAIATZA)  
1985**



**SUKARRIETA:  
UMEENTZAT  
EGON-LEKU  
ZORAGARRIA**

## EUZKERA ZAINDUTEKO EGOKIENA

Orain aldi aundirik ez dala asia da ainbat ingurutan argitalduten, urren barri-idatziten dogun idazkitxu au: "Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakienak ikasten ez dutelako, dakitenak hitz egiten ez dutelako baizik".

Ezin geinke esan guzurra dala idazki orretako esakera guztia, baiña, bai esan geinke egi-egia erdizka baiño ez dala. Orain arte euzkeraz dakigunok geure jokabide guztiotan geure izkuntza, euzkera, abotan erabilli arren ez dakienak ikasiten ez ba'da-be, oraingo euzkaldunokaz ilgo da euzkera.

Egia da, euzkeraz dakigunok edonon da edozeiñekin geure izkuntzan solastutzeko beartuta gagoz, orretara euzkaldunbarriak eta lendik euzkaldun diran askok be, lotsa barik itz egin dagien. Asko dira euzkeraz polito jakin arren etxetik at gure izkuntza erabilten lotsa diranak.

\* \* \*

Euzkera zainduteko eta berbiztuteko, beste jokabide egokirik asko bere ba doguz; lenen, gorago esan dogunez, edonon eta aldi guztietan, dakigunok euzkeraz mintzatu, aldanik landuen baiña besterik ezean, dakigun eran, eta urren, ez dakien euzkotar guztiak ikasiten alegindu eta dakitena lotsa barik edonun mintsatuaz.

Euzkotar lez, jatorrizko izkuntza, benetan txukuna! abotan erabilteko ez dau iñok lotsarik euki bear, poztasunezko arrokeritxua baiño. Lotsea iñork eukitekotan, euzkeraz idatzikeran euki bear da, batez be izkuntza ikasiteko une edo zoria izan eta landu ondoren ikasia ba'da. Benetan lotsagarriak eta euzkera maite dogunontzat negargarriak dira, etxaideak zear ikusten

doguzan iragarkiak, eta bai ta be izparringi ta aldizkari batzuetan ikusten doguzan idazkera trakatzak, nai-ta erderatik euzkerara itzuli dituenak txindi-mordoa irabaziten dabenak izan. Ara emen gure erriko etxaide edo kale baten apain-apain ipiñitako iragarki baten zer irakurri geinken, ulertu al ba'dogu:

### "DEBEKATUTA

**APARKATU ETA ESTAZIONATZA 3,5 TONAZ GOIKO KAMIOJAK ETA AUTOBUSAK HERRIGUNEKO IBILKUNTZA BIDEATAN 22 ETITIK 6 ETARA KARGA ETA DESKARGA EZIK"** (azpi-marra nirea da). Eta oneitari-ko asko ikusi geinkez batean-beste, euzkera aberastu bearean, mordoilduta zikinduten dituen erdel-itzak.

\* \* \*

Edozeiñek dakian lez, itz barri asko dira beste izkuntza aurreratuen iztegi marduletan, baiña, itz orreik ez dira euzkeralduten K bat edo TZ izki bat ipiñiaz beste barik, gaur egun idazle asko egiten dituen lez eta, sarri-askotan euzko iztegiari pizka bat begiratu ez egitearren erdel-itz utsak ipiñiaz, sustraiz eta zentzun argiaz aditu ta maitasunez itz barri egokiak, bear bada, sortuta baiño. Eta ez erdel itzez zikindu, gaztel-izkelki baten antzera yartera arte.

Batez be euzkotar euskaldunok orretaraxe jokatu bear dogu Euzkadi'n izkuntza benetakoa euzkera izatea nai ba'dogu.

*Altuna'tar Josu*

## "EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETE

**EUSKERAZALEAK** Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearko dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuinen itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkenerako gure etxean (Colón de Larreátegui, 14, 2.<sup>a</sup> eskoia) izan bearko dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.<sup>a</sup> 40.000 pezeta; 2.<sup>a</sup> 30.000 pezeta eta 3.<sup>a</sup> 20.000 pezeta; 4.<sup>a</sup> 10.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearko dabe.
- Oitura dan lez, ipuiña izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroazan txartela.
- Maikoen erabagia, uztailleko ZER'en agertuko da.

## ATZEAN NORTZUK?

### LARRIALDIA

Larrialdiaren giroan bizitea etorri jaku guri. Au ez dot uste inok ukatuko dauanik. Ain dagoz argi ta begien aurrean larrialdiaren ezaugarriak!

Errigintzako aldakuntzak giro orretako larrialdia sortu dauskue eta or gabiltz batzutan itxaropenez beterik eta urrengoan itxaropena nondik sortu leiteken asmau eziñik.

Gizarte-arazoetan, batez be lanik-ezak sortu dauan egoera dala-ta, estu ta larri gabiltz eta estutasun eta larritasun au biziagoa izateko, or daukaguz lantegien ber-egokitzea ta Europa'ko Azoka bateratura sartu-bearra, batez be baserritarrentzat kaltegarri izango dala iragarrita.

Erlejiño-arloan gauzak bideratzen doazala uste izaten dogu batzutan, baiña aldakuntza ta eguneratze-unea amaitu barik, naiza pozgarria izan, esate baterako, ainbeste taldek emon daben baietzerako erantzuna, Bizkai'ko Eleiz-Batzarrean.

Eta jokabide edo "moral"-gaietan inoz ez lako nora-eza ta eztabaidak sortzen dira, ezaugarri lez jaio-bako ume-iltea ainbestean ugarituta eta zirgor-bidetik alboratzea agertzen dala.

\* \* \*

### GIZARTE-ARAZOA

Baiña begiratu dagiogun gizarte arazoari eta or barruan dan lanik-ezaren larritasun biziari.

Oraintsu esan dausku Euskal-urrukuskiñak, jorraillaren 14'an "Emen Bizi" saioan, % 54 dirala Euzkadi'n lan barik eta lan-billa dabiltnan gazteak eta elduen maillan be Europa'ko beste inon baiño larriago gabiltzala orretan.

Gure gazteak, ekin eta ekin urteetan ikasten ibilli ondoren, lan egiten asteko sasoi datorkenean, izparringietako iragarkiak ikusi eta urrutizkiñez banan-banan dei egiten asten dira. Geienetan alperrik.

Eta orrein egoera baiño larriagoa da sendi baten buru ta arduradun izan eta etxerako ogia erosteko nondik ez daukenen egoera.

Baiña ba-dauko gure gizarte onek beste alde ulertu-ezin bat be: Jate ta Edate-Etxeak, batez be karuenak, beterik ikusten dira eta gure saletxeetan ez jake geiegi begiraten salneurriai merkeena erosteko.

\* \* \*

### ATZEOALDEA

Gure uri aundietan, emen eta mundu guztian, etxe ederrak agiri jakuz, kale-bideak ondo apaintzen dira, baiña beste mundu bat dago gitxiago agertzen jakuna: Etxe ta kale orrein atzekoaldea, beste kale bardin bat ez danean, edo olako edertasunik eta apaingarrik ez dauken uri-bazterrak. Or beste mundu bat agiri da, edertasuna baiño beiñago janaria billatzen daben mundua.

Orra or erdi nastauta dabiltnen mundu bi: Irabazi ta txautu dabiltnanen mundua eta eguneroko bear-izanai nondik erantzun ez daukenena, gizartearen aurrekoaldea ta atzekoaldea.

\* \* \*

### URTENBIDEA

Ain gaitxa ete da lanik-ezak sortzen dauzan mailla bi oneik urreratzea edo neurri baten beintzat bardintzea? Eziña ete da guztientzat lana izatea?

Dagoana banandu ezker ez: Lan-orduak gitxitu, oporraldiak luzatu, zar-saritzeak aurreratu. Berba baten esateko, dagoan lana guztien artean banatu.

Baiña jokabide onek be bere akatsak daukaz, zalantza barik: Gizarte-babes edo seguroen arazoa, esaterako. Baiña ez dala konpondu-eziña dirudi.

Banatzte ori eltzen dan artean, beste urtenbide batzuk agertzen dira, larri-aldi ta estualdietan bear diranak: Lan egiten dabenak illeko egun bateko irabazia emotea, elburu orregaz diru-batzeak egitea, estualdian ikusten doguzanai laguntza emotea... Txalogarria onetan "Karitas"ek egiten dauan lana. Atxakiak errez aurkituko doguz, lanbakoak eurak be beti ez dabe zintzo jokutzen-eta, baiña orretarako diran eskarietan ez daukagu atzera egiterik eta ez lauho batzuk emonda bare geratzerik. Arazoa larria da benetan.



## EUN URTEKO ANDRA BAT, BIZKAIA'N

Maria Sagastigordia Azpuru. Ona emen eun urte laster egingo dituan etxeko andra bat. Euba'n bizi da Bediaga'ko Bixente deunaren Bazeleiza ondoan. Bere semea dan Euba'tar Domingo'k emon eustazan argibideak aurreko nire idazlan bi Bixente deunaren Bezeleizari buruz nengiazan.

Domingo Euba'ren etxera igande arrastegietan elduten naz osasun-ibiltaldi bat egiteko. Emen bizi da esan dogun Maria Sagastigordia. Nik, beragaz berbalditxua egin gura nebanean, sutondoan jesarrita egoan. Ainbeste urte euki arren ez dago gaisorik berba egiten dau ta entzun be nai-koa ondo.

\* \* \*

Gizabidez agurtu ta gero itaundu neutson:

—Zu Mari, andrea, esan dauste laster egingo dozuzala eun urte...

—Bai, aurtengo azken illebetea, 1985'eko Abendua'—ren 14'an.

—Ta orduan be, aldi areitan, joaten ziñean eskoletara?

—Ezkiñan joango, ba...

—Zuk zenbat urte egin zenduan ikasten eskolan?

—Zazpiren bat bai, ez ba'dira geiago.

—Ondiño ez dautzut itandu non jaio ziñean...

—Larrabezu'n ta ona ezkondu.

—Esaistazu, mesedez: nongoa zan maistreia, edo irakaslea?, euskeraz ala erderaz egiten zenduen eskolan onelango gauzak...

Eta zer esan eutsan?...

Emen ipiñiko dodazanak, jakitekoak, barri onak eta zarrak.

Maria Sagastigordia'ri neskatoxtua zanean irakasten eutsan Larrabezu bertako alaba batek. Maestrea Larrabezu'koa zan.

Ez neutson itaundu mutikoai maixuak irakasten eutsen. Olan izango zala uste dogu. Ori jazoten zan Bizkai-erriko biztanleen artean. Au da, maixua ta maistrea. Neure txikitan ikusi nebana Orozko'ko Ybarra'n Olarte Parrokian esango dot. Ango mutillak Burgos'ko lurraldeko maistra bat geunkan. Neskatillak mojetara joaten zirean. Koskorreko itzalak emoten euskuzan taket bategaz, baiña ez euskeraz egiten gendualako. Amorrutxua ba-eutsen euskaldunai; alan be, ez eban jarraituten Bizkai'ko errietan euskerea zapaldu ta urrinduteko beste maixu ta maistren oiturea. Oitura au Maria Sagastigordia'k oar-ikasi ta egistau eban.

Zetan da ba oitura ori?

“Zer” aldizkari onen irakurle geienak dakiela uste dogu. Esatera noa orreitiño laburki. Eskolara doazen neska-mutillai (orduan ez egoan sexu nastaukeririk; oraingo pedagogierak, ostera, diño neska-mutillak batera ezi ta irakatsi bear direala). Orduan neskak toki baten ta mutillak beste baten. Euren artean iñor ikusi edo entzurten ba-

zan euskera egiten, areri ipinten jakon erastuna. Alan, erastun orregaz azken geratzen zan ari eskolea garbitu bearra edo beste zigorren bat emoten eutsen.

—Eskolea itzi zenduanean, zer izaten zan zeure zeregiña? Otseintzea?

—Ezta. Nire aitak ba-eukan naiko dirurik bere seme-alabak asteko. Iru giñean: neba bat eta aizta bi. Ama il jakun, nik bost urte neukazala. Nik zeregin barik ez ego-tearren, josten ikasi neban, jostun egin nintzan, eta ogibide onegaz alogera irabazten neban.

—Ez jatzu etorten burura gazte-aroko oroimenen edo gomutakiren bat?

—Bai, bai, jazoriko polit bat datort burura. Nire lagun bat ezkondu zanean, amairu amaseiko (pelukonak izango zirean) eroan ebazan eleizara eleizkizun-ekkontza egiteko. Kristiñauen eleizako eginbearra amaitu zanean, neskatilla ezkonbarriak olgau egiten eban amaseiko bat bean ipiñita. Lurrean egozan arlosetan, batetik bestera oiñeko beatzak igaro bear eban. Auxe izaten zan erri-jai baten lez ikusgarria guztiai oyu ta txalo eragiten eutsena.

\* \* \*

Maria'ren aita Ameriketara egon zan. An egoten ziranai “Indianuek” esaten jaken, orain bizi dogun gizaldi onetaraño gitxienez. Amairu urte egin-ei ebazan. Ze ogibide? Artzaiñarena urrean. Non ez dakigu. Izango zan aldi areitan euskaldunak egoten ziran lurralde baten: Idaho izan leiteke. Andik ona elduta gero, dotore, bere espain-gaiñeko ule luze biurritz jantziten zan arpegia apainduta edo mots-tuta eta urregorritzko kate disditsua bular ganean. Diru moltso polita be ekarriko eban. Baiña dirudunak kontuz ibilli bear beti! Lapurrak edozein erritan sortuten dira zorriak buruko ule artean lez. Euskalerrria entzutentsua zan bere lapur ugaritasun te onein oiturak zirala-ta. Aitari zelan ostu eutsoen bere alaba Maria'k esango deusku: “Egun baten goizaldean sartu ziran gure etxera lapurrak. Lotu eutsoezan eskuak eta, gela bateko giltzapean sartu ta euki eben. Bitartean, arrapaladan arakatu ebezan susmatu-riko diruak eukiteko gordailuak. Ameriketatik ekarri zituan dolarrak kendu eutsoezan, baita urrezko ordulari eder bat be”. Aita 94 urte bizi jakon.

San Bixente Bediaga'ko Auzo Erdian biziteko ezkondu zan. Eta bizi, orduan kristiñauak biziten ziran lez, zintzo-zintzo ta poz-pozik, nekez ta lanpeturik egon arren, abade on baten, D. Tiburtzio Goiria'ren zuzenpe jakintsuan. Domeka ta jai guztietan entzuten eban Mezea orretarako kilometro bat berago, abadea Don Antonio emen bizi zalako eleizatxura jatsita. Urte guztiko barikuetan okela-iztea gorde ta barau egin Garizumeako egun izendatuetan. Orain San Bixente Bediaga'ko Auzo-Erdian bizi da bake ta osasuntsu bere semeagaz.

Letona'k

## KULTUR-ETXEA (Ondarroa)

**BAKAR IZKETAK.** Bost sari, bakoitza 20.000 pesetakoa.

Amabost lan agertu ziran.

Sarituak oneik dira:

GAZTETASUNA. Egilea: Jesus Gaztañaga.

GUDARIEN ESKUTITZA, Eg. Josu Arkotxa.

IZANAK IZAN, Eg. Maribel Rementería.

NI MUTIL ZAR, Eg. Jesus Gaztañaga.

NORI, ZERI, ZEINERI, Eg. Eusebio Erkiaga.

**ALKAR IZKETAK.** Bost sari, bakoitza 20.000 pesetakoa.

Amaika lan agertu ziran.

Saritutako lanak oneik dira:

ARDONTZIA, Egilea: Eusebio Erkiaga.

EIZTARI TA KALEKO GIZON BAT. Eg. Martin Iturbe.

IRU MILLA GARREN URTEAN. Eg. Josu Arkotxa.

PATXIKILLO TA PANTXIKE. Eg. Jose Antonio Arkotxa.

ZURRU MURRU. Eg. Maribel Rementería.

**ANTZERTI LABURRAK.** Zortzi sari, bakoitza 25.000 pesetakoa.

Amabost lan agertu ziran.

Saritutako lanak oneik dira:

AUSARTAK, Egilea Ana Urkiza Ibaibarriaga.

BENETAKO AMESAK, Eg. Martzel Andrinua.

BIKO BI, Eg. Eusebio Erkiaga.

IRRINTZIA, Eg. Eliseo Lejarza.

LAPUR DAMUTUA, Eg. Estanislao Urrozola.

MOZKORRA EZ DA GAIXOA BAIZIK. Eg. Manu Oñatibia.

NORENA DA AURRA. Eg. Jose Mari Etxaburu.

TXOMIN ETA ANTONEN AMESAK. Eg. Josu Arkotxa.

Gaur cuzkia urten da beste egunetan lez eta bestetan lez egaztu dira txoriak. Auzotiar eresiz alaitu dira zelaiaik baso, landa, alorrak, urialdeko anotsez.

Beste egunetan lez. Giltzadura bardiña erabili izan dabe betiko crara, udabarri otsez egutzen dan goramiña amets barriak ekarriz gizonen bidera.

Zein pozik ibiliko nintzan lagun artean alkarraz lenago lez; ez al zara oroitzen? ametsak eralgiz gaztetasun ederrean.

Baña ustege antzaldatua aurkitu nintzan etenda nire arien soñua bein baten udazken berakor azkengarriaren orbeltzan.

MUNIAITEGI-TAR SABIN

Itxasoak zear, munduz... "txo" itzak olatuz olatu bide aundiak egin ditu urratuz kresal bitsak ikusiz munduko portu guztiak.

Amalau bat urteko mutil koskor ontzietako berengo mallaetako txiki izatetik etorri yako deitura ori ain ezti ta kresalor.

Egun batez, ai, txo! maoizko jantziz itxasoratu ziñan ogitara, amagazko kutunkeriak erantziz, erabat pozik ta bildur-ikara.

"Txo", batak emendik ta, "txo" besteak andik. Zenbat neke-min zekarzkizun gizon izateko bide gurutzak, zenbat txiki-izateazko mentasun!

"Txo" deiturapean, apalik beti, kapitaneetik as ta azkenengo edozein mutur-zikiñerainoko zorri-bizturen bat zala oiukari.

"Txo" geienak gizon egingo ziran edota, ez ziran gizon egingo. Baña, "txo" euskal deitura, munduan ez da errez galdu ta desegingo.

MUNIAITEGI-TAR SABIN

## BETI GORA

Bagil bero beroa  
aurtengo bagilla.  
Arratsalde erdian  
banoa goruntza,  
zer-egintxo bat daukat  
goiko baserrian.

Bide txiorra latza,  
baiña zoragarri,  
or emen ikusten dan  
gauza miragarritz  
leunduten dabe bide  
ordu gogor ortan.

Emen txori abia  
ipiña txorik,  
arantza artean  
txori ama ixillik,  
apal apal dago  
arrautzen ganean.

Or txipillota urdin  
loratik lorara,  
askar da benetan  
bere margo politak,  
antzeztu eziñak,  
eder begietan.

Arago txindurriak  
doaz bide ertzean,  
danak erreskadan  
kokotx bana bakotxak,  
eurentzat aundiak,  
ezin ibilian.

Une baten geldu naz  
atsedena artuten,  
ezin ibilian.  
Bealdean agiri  
lautada ederrak,  
mendi eder aundiak  
dagoz urrunean.

Atsedendu naz pizkat,  
Banoa goruntza.  
Nire begin aurrean  
or baserritxo,  
polit bikain ederra  
ara eldu naian.

Andra zabal argia  
irribarretsu dago  
etxe atarian  
beraren txera eder  
bai da zoragarria  
atsalde beroan.

Ur otz garbi garbia  
emon eustan berak,  
gero berbaldi sakon  
luze ezitsua bat,  
antxe ikusi neban  
baserrin zorion.

Baserriko endea,  
zintzo ta garbia  
ortik dator guregan  
izate berezia  
Baserri da guretzat  
bake txoko laztan.

Gora ta gora beti  
egin bear dogula,  
naiz ta nekez izan,  
gero dator atsedean,  
bai ementxe lurrean  
bai gero zeruan.

GALLASTEGI'k



## LAU URTEKO NEURE IBILLERAK (V)

### Piñuetan

Gu joan giñan piñu tokia Landes errialde zan. Mundua andia da ta guk munduko barri gitxi dakigu, baiña piñu geiago dagoan lurralderik mundu guztian ezetz aurkitu samea jokatu neuke bildur andi barik. Amaibako lur lau arek piñuzko itxasoa zirudian.

Itxasoa baiño berago ei dagoz lur arek eta len, oraindik ez antxiña, ondartzea baiño ez ei ziran. Ta eskerrak piñuai, len ezetarako ez ziran ondartza arek, aberastasunaren iturri biurtu ziran.

Izki batzuk gora-bera, gu joan giñan tokia olantxe deitzen zan: Onesse, Laharie, Mariasse. Onesse, erriaren izena zan; gu egon giñan inguruari Laharie eritxon, eta Mariasse, bizi giñan etxe edo barraka zar andiaren izena zan. Alan be, Onesse erria bein be ez genduan ikusi. Lana egiten genduan lurretara joateko Morsen izeneko errian jatsi giñan bultzitik. An egoan bat gure zain eta bere beribilean eroan ginduzan Laharrie'raiño.

\* \* \*

Besteen barririk ez nekien baiña nik neuk kezka apurra ba-neroan. Basora eldu giñanean aizkora otsa entzuten zan, eta zugatzak lurrera jaurtitean ataraten dabeen zaratea. Lengusuaren itauna egin genduan eta berealako baten bere aurrean giñan. Bizimodu gozoa ez zala laster konturatu giñan.

Biaramonean asi giñan lanean. Rafael lengusuak lengo lagunakaz jarraitu eban. Beraz, beste iru lagunok egin genduan aldre: Teodoro lengusuak, ordurarte eskuetan liburuak eta idazkortza besterik erabilli ez ebanak; Karlos'ek, batxillerraz gaiñera osagilletza ikasten beste urte bi egingdako madritarrak; eta neuk, esku lanean oitutakoa baiña indar andikoa ez eta baso lanetan oitu bakoak. Serra bat eta bakotxari peladora edo azal kentzekoa ta aizkora bana emon euskuezan eta izentau euskuen basoko saillera joan giñan.

\* \* \*

Ta, asi giñan al genduana egiten, gure ala ez zan andia baiña. Lan asko egin baiño len eguerdia eldu jakun. Bertan basoan egin genduzan indibaba (indarrak, Ondarru'n) gorriak bazkaritarako. Neu nintzan sukaldaria. Ziburu'n ixikoren etxean, milla bidar egon nintzan lapikoari begira bera lanera joaten zanean. Baiña ez nintzan jasako sukaldaria. Ta geure lan barriagaz buru belarri jardun-edo, zearo agortu zan lapikoa ta gaiñera gatz ontzia zan a. Gose galanta izan arren koillakada bat iruntsiterik ez egoan. Ta zerbait jan egin bear eta sardiña latatxo bana jan genduan. Axe bakarrik. Eta bazkal osteko lo kuluxkea egin ondoren, barriro lanera.

\* \* \*

Bederatzi zugatz egin genduzan iru lagunen artean egun guztian. Jaurti, adarrak ebagi ta zuritu. Egun batzu-

tako lanaren ondoren zatitzen ziran zugatzak eta "triangulo" antzera toloztu iru-lau alkarren gaiñean. Egun aretako lana zenbat izan zan erakusteko auxe esan bear dogu: Lenengo egunean bederatzi zugatz egin genduzan iru lagun artean eta ordutik illa batzutara, lau lagun artean, 125'tik 130'era egiten genduzan.

Lenengo astea zala txarrena esan euskuen piñuetara joan aurrean. Baiña nitzat beti zan bardiña, gitxi gorabera. Egia, lenengoetan egun osoan egiten genduan lana egiteko gero ez geunkan izerdi asko jaurti bearrik. Baiña lenengo bederatzi ta ondorengo egunetako dozena zugatzen ordez gero eundak ziran. Beti al genduan guztia egiten genduan. Beraz, adiñ onaren jaube bagiñan be ederto nekatzen giñala esan bear.

Piñuetan illa batzuk geroazala oraindik eskuetan min sentiduten neban. Aizkoreagaz egurrari zartadak emoten esku azurrak minduta geratu jatazan, eta min arek sarritan esnatu ninduan gaberdian.

\* \* \*

Lenengo iru illabeteetan, Gabonak arte, piñu erreak ebagiten jardun genduan. Lanerako baimena emoten eben paperak be orixe esaten eben: piñu erreak ebagiten ekiteko baimena emoten euskuela.

Piñadi arek suak erreta egozan, dana egoan erreta eta ibiltean oiñak krak-krak ataraten eben. Erre auts andia jagiten zan eta ikustekoak egoten ziran astean bein garbitzen genduzan gure arpegiak. Ikatzean lanean jarduten dabenak baiño loiago eukiten genduzan, begi ta agiñetako zuritasuna bakarrik ikusten zala.

Lurpetik esku-bonbeagaz ataraten zana baiño beste urik ez egoan. Jantzi garbiketa andirik ez genduan egin Mariasse'n egon giñan artean. Igandeeetan ba-geunkan astia orretarako baiña, moldaten ez giñan lan a egiten asteko gogo gitxi eukiten genduan. Bein, garbiketeari ekin geuntsana, gomutaten naz. Barruko jantziai jaboia emonaz, igurtzi ta igurtzi ukabil artean; barre egiten genduan asieran ataraten geuntsan bitsaren baltzatasuna ikusirik. Gure jantziai kolorea emotekorik ez egoan. Ez naz gogoratzen ordutik aurrera zelan izan zan gure jantzien garbitze kontua. Gero, andik alde egitean, andra bateri bialtzen geuntsazan.

\* \* \*

Lenago be esanda daukat gura bizilekua Mariasse zala. Oletzko barrakatzarra zan eta nagusi batentzat lan egiten genduan ogetamar inguru gizon bizi giñan bertan. Pasaia'ko galizitar bat edo beste izan ezik, danok euskaldunak giñan eta geienok gazteak. Etxe a ez zan gizakien bizilekutzak egindakoa edo beintzat an ez egoan ezer egokitasunik; ez sukalde, ez lo-gela, ez irol eta ez leiorok. Bea, iru-lau zatian banatuta egoan eta goia, mandio andi bat

zan. Gu mandiokoak giñan. Lurrean lastoa jaurti ta manta bat lasto gaiñean ipiñita, axe genduan oea.

Lotarako jantziak kentzen ez genduan denporarik galtzen; soiñean geunkazan jantzi guztiakaz etzun eta manta ta zapi zarren bategaz estali ta ¡lo! Biaramonean, jagitean, aurregunean lotaratzean burko gaiñean geratu zan txapela artu ta burura eroanaz, jantzita gengoan. Baiña jagitakoan, apur baten otz egoten nintzan, edo presura nabaitzen neban.

\* \* \*

Otz andiak izan ziran negu aretan ta andienak gu Gabonetan Donibane Loitzun edo obeto esateko Ziburu'ra osaban etxera juanda gengoala, esan euskuenez. Utsetik amairu maillara jatsi ei zan giro-neurkiña ta ardaa be izoztu.

Gu bertara biurtu giñanean be utsetik zortzi maillara jatsiten zan. Guk geunkazan ganorabako oe ta gela edo danadalakoetan ikaragarrizko otza egiten eban, eta lotarako, egunez jagita erabilten nituan jantzien gaiñetik, jaka lodi bat jazten neban. Lengo trapu zarren gaiñean ezin jantzita ibiltzen nintzan, besoak ozta-ozta sartu ta botoiak ezin loturik. Esan dodan lez mangak estu-estu eukiten nituan, ta besoak, zuzen euki ezik nekatu egiten jatazan; orregaitik, eskuak, zuzen eukiteko, kaltzetako poltzikuan sartuta eukiten nituan eta alantxe lo egin.

Piñuetara juan aurretik sekula ez neban sentidu oetik jagi bearrik. Baiña nire kuntzurrunak astiñaldi ederra artu eben an eta gaberdian jagi ta kanpora urten bearra izaten neban lurra bustitera.

\* \* \*

Piñu txikiak ebagiten jardun genduan, puntea kendu ta amar-amabi neurkin luzerakoak. Lan orri "poteo" a dei-

tzen jakon. Gure lana, neurkinka edo metroka ordaintzen euskuen eta nagusiaren ordezkaria etorten zan neurtzera astean bein-edo. Gu ez giñan arduratzen egiten genduan lana neurtzen. Zerbaki asko egin bear zan, gaiñera, geuk be kontuak atara eikeguzanik sekula ez euskun iñok esan. Emoten euskuena artzen genduan eta kito. Diruagaz batera kontu errezoia emoten eban papera be emoten euskuen. Dana zerbakiz beteta ta nundik irakurten asi be ez genduan jakiten. Nire lengusu Teodoro kenduta zerbaki arei sekula iñok ez eutsala begiratu samea jokatu neuke. Teodoro'k bai, kontularia zan izatez be ta. Ta zerbaki arei begira galdu zituan orduen ordaiña izan eban bein. Utsa aurkitu eban eta libera batzuk emon euskuezan.

\* \* \*

Lenengo denpora areitan ez genduan asko irabazten. Ez naz ondo gomutatzen baiña eguneko 30 liberatik alde andirik ez zan izango. Beintzat, Gabonetan Ziburu'ra antzar edo aate bat eroan nai genduan baiña eguna eldu zanean atzera egin genduan, gure poltzikoentzat geiegi zala ta.

Lenegoan, igande bat edo beste meza barik igaro genduzan. Nun gengoan be ez genkiala aurkitzen giñan eta baso aretan noruntz asiko giñan? Baiña laster asi giñan mezea entzuten. Andik iru-lau kilometrora mezea emoten ebela jakin genduan eta jaiko jantziak jantzita, an juaten giñan. Geu, lau lagunok juaten giñan bakarrik Mariasse'tik. Eleiza aren bi edo iru kilometro inguruan eundaka asko euskaldun aurkituko ziran piñu lanean baiña ara iñor ez zan agertzen. Geure errietan, geure giroan gengoanean danok juango giñan ziurki, baiña an elizea zer zan ezagutzen ez ebenen antzera, bertara, urreratu be ez zan egiten euskaldun gaztea.

*Kamiñazpi*

## NIRE AMAREN ARPEGIA

Sortaldetik egunero jagiten da eguzkia, benetan da argi argi egiazko zoragarri.

Bera jagiten danean lur dana astinduten da, mendiak zerutaraiño ordun igoten dabela.

Txoritxuak abeslari gizaldea agurtuten, euren soiñu ugaritua dana dabela alaitzen.

Itxirik egozan lorak lore-ostoa zabalduz, inguru dana usainduz goxo goxorik bigunduz.

Mendietako edurra, errecondoko izotza eriotzaren irudi, zure indarrez bizitza.

Eder da zure egintza eguzki zoragarria! bizi bagako izaki ederren eta nausia!

Baiña nik ba-dot eguzki zu baiño ederragoa nire amaren arpegi zu baiño altsuagoa.

Zuk ez daukazu biotzik odol pilpillez maitatzen, nire amaren biotza maitasunez irakiten.

Irri barrerik egiten zuk ez dakizu, eguzki, nire amaren ezpanak irribarre margo gorriz.

Zu barik ezin naz bizi zure beroaz indartuz bizi da gizadi dana beragaz gizon bizituz.

Baiña benetako bizi au baiño ederragoa epel gozo zoragarri nire amaren arpegi.

Zagoz, eguzkia, geldi! amagaz batera jagi biok olan alkarturik mosotu nire arpegi.

*Gallastegi'k*

## AMATASUNA SENDOTU

Egunotan sabelean dagon umea naiez galtzea dala ta ez dala sekulako zarata dabil gure artean. Batzuk, ondo dagola; beste batzuk ostera, txarto dagola. Ori agiri da idazti izparringi, aldizkari, lege etxe, agermentetan etab. etab.

Guk txarto dagola esan bear ori argi ta garbi dagolako kristau moralean.

Ondo dagola diñuen batzuk, erriari ziria obeto sartzeko, au diñue: Elizak berak bere iñoiz, ondo dagola esan dau; baña ez da orrela. Elizak, eliza lez, beti bere maisukuntzan txarto dagola esan dau.

Bai ziran eretxi ez berdiñak zenbat egunetara biziten asiten zan umea, baiña elizak beti esan dau umea bein izaten asten zanean amaren sabelean ezin zeitekela ezelan bere il. Ori gaiztakeri ta iltzerik gogorrena zala.

\* \* \*

Orain jakintzak aurrerapen aundiak egin ditu eta biologo-osagille aundienetakoak diñue umea lenengo lenengotik bizi dala, orregaitik ezin leiteke il seinkolotxo ori ez kristauak garen aldetik, ez ta gizonak garean aldetik.

Kristau morala eta etika zentzunduna epel dabiz munduan. Dana da lizunkeria ta aragi gozaketa, ondorenak ta egin-bearrak ez dira onartuak. Deadarka, gizona ezin daitekela eriotzarako epaira eroan (neuk bere ez dot nai iñor il dagien) eta geien baten, jaio bako umeak ilteari ondo deritxue.

\* \* \*

Ilte baltz ori egiten daben amak, nire ustez, bizitza guztirako zauridura nai ta nai ez, izango dabe.

Legen baltz ori guregandik urrinduteko, kristau morala ta etika zentzundun bat indartutea ona litzateke bai ta amatasuna sakondutea be.

Gauza miragarri ta aundia da seme-alabak sortzea, Jainkoak berberaren indarra emon dautse ta altasun ori maigarria da. Batez be amak jakin bear dabe zein aundia dan seme alabak eukitea ta auren amatasuna sakondutea, orrela jaio bako umeen ilte gutxiago izango da.

Baita jakin beie ama orreik ilten daben umetxoa izan leitekela danetatik ederrena ta miragarriena.

\* \* \*

Jazokizun bat gogoratuko dogu emen: Egun baten nire eliz gelara etorri zan andra eder jantziriko bat eta esan eustan: Jauna, eskerrak emotera nator.

Zergaitik? nik, ez zaitut ezagutzen.

Ara, gogoratzen zara 1941'an Bilboko eliza baten zuk egindako berbaldiakaz?

Bai.

Antxe nengoan ni entzule lez. Neure senagarras asarraturik, ia ia bananduteko gengoan.

Zure itzaldia benetan gogorra izan zan, euren sabelean umea ilten dabenen aurka, an an oñeztarri ta trumoia! Itzaldi gogorra benetan. Seindun nengoan eta urrengo egunean ume ori ilteko berba emonda andra bategaz, baña zure itzaldi bildurgarria entzutean bildur ta ikarea sartu iatan barru barruraño ta erabagi indartsu bat artu neban: Ez noa sanarragandik banandutera, ez ta umerik iltera be. Andik laster jaio zan nire semerik politena. Irribarretsua bera ta engañatzailea. Orain bederatzi urte ditu ta, berari eskerrak, oso alkaturik gagoz senarra ta ni. Ume orrek, bere edertasun ta maitetasunagaz, alkartu gaitu guztiz senar emasteak eta inpernua zan gure etxea, berak biurtu dau zeru. Zure itzaldiagaitik esan neban, Jainkoak nai dabena izan dedilla, bai ta ondo urten gauzak! Ostera bere, Jauna, eskerrak bein ta milla bidar!!!

\* \* \*

Eskerrak zuri, andra, ekarri daustazun izpar onagaitik. Ara nun aita izateko bide barri bat adierazo daustazun! Ezkonge diran amai lagundu beti, baita ezkonduetako ama txiroai, baiña ezelan bere ez il jaio bako umerik. Ez ilterik, ez ta gaiztakeririk, ama on ta bedeinkatuak izan daitezcan ama guztiak.



## MUNDUA AGURTUZ

Bai, atzo, oraindik udabarri ederra zan ta, lorak, usai gozoz ta, txoriak, ego-otsez, alaitasunezko maite-eskeintzaz zetozan itxaropenezko margo ta, arintasunez, bizitzaren atea birpiztu ta zabalduz euri mami ta eguzki altsuaren bitartez negu baltzak ozkilduriko lurak berotuz.

Ta, abes dagi maitetasunak izadiaren alorretan, berein ta bost abots ernalgarriz aizea berotuz ortzipe amestua bizi-gogo gora-minduaren atsaldi biziz; abes dagi, lurreko gauzak ederduraren lora ta zituzko barrutira erakarriz emoitz-aldi gurenezko abotsik gozoenez.

Ba-doa udabarria ta, ba-doa uda ere, beren abesti, beren igali, alez ta, Udazkena dator beramin. Etorri da. Emen dago, beren eguzki gozo, epelez, azkenengo bizi-laztankerietan agurka beren negu-aurreko amets-kondar, orbelez.

Bai, ixil-mixil, orriak jausten ari dira ta, zugatz-adarrak buru-soiltzen dakusguz orriz orri orbelak jausiz itun, azpira, ta, izandako aztarna lurrean zabalduz aizean doaz bai, aizean, beste bizira illeta eresipean mundua agurtuz.

MUNIAITEGI-TAR SABIN

### EZTABAIDAK

Gizonak ta gizonak ere ez diranak aunitz askotan dira bai eztabaidatzen beren ikuste, gogo itsuz dabilzkanak edozer mendekeripean goiak artuz baten ustez katuak ta bestearen ustez txakurrak otzanago diralako edo beste orrelako uskeri, zioeren batez gogor eztabaidaka buruak berotuz.

Ba-dakizu, "zenbat buru ainbat aburu" ta, ortik zortzen dira ainbat aiku-maiku. Asarreak sortzen dira, gero, burrukak ere, au dala, ori dala gudak sortuz. Ta, zer nai dozu? Abere izate ori odolean sartuta baldin ba-daruagu gure bizitzan betiko Jaun ta Nagosi?

MUNIAITEGI-TAR SABIN

### ALDATZ GORA...

Aldatz gora, aldatz beera, biak nekean alkandora eta atorrapean.

Baña bai, ibiliaren ibiliz bideak asko nekatuarren, bizia amespe zoragarri aurrera doa beren betiraunezko ariz.

Bakoitzak daroa bere iaiotzako izarra; bakoitzak daroa beren atsegin edo negarra; bakoitzarekiko zori, izangoa.

Aldatz gora, aldatz beera; ola doa beren gure denpora.

MUNIAITEGI-TAR SABIN



### ITSASOAK MAITATUKO ZAITUNEAN

JORGE MAREL

Itsasoak deituko dautzunean  
Beren ondoan egongo zaranean  
Aren abotsak zure ondoan abestuko duanean  
Nabaituko dozunean  
Berena bakarrik zarala  
Itsasoak zure narrua ikutuko duanean  
Besarkatuko zaitunean  
Zure gerria estututzean  
Ta zuri mosu emotean  
Zure gorputz billutsak  
Itsasoaren igurtzi beroa nabaituko duanean  
Berari emongo zaranean  
Itsasoak artuko zaitunean  
Ta zure gain izurkatuko danean  
Beren bitsaz azpiratuko zaitunean  
Ta atsegiñez beterik inkesatuko zaranean  
Itsasoak maitatuko zaitunean  
Orduan bene-benetan  
Gogoratu bearko nauzu bai egitan.

MUNIAITEGI-TAR SABIN

## AITA LON ARTEAGA, OLERKARI

Mañari, Durango ta Urkiola tartean, erri txikia dozu, baiña gizaseme aunditan aundi; bertako aitz-mokorrak, baltzak eta nabarrak, ba-dabe ospe ta entzuterik mundu zabalean. Baita euskal literaturan Kirikiño'k eta beste askok be.

Ementxe jaio zen Aita Lon Arteaga, 1917-5-16'an. Umetan erriko eskolan osotu zituan leen-ikasketak. Jainko-zaleak eta elizkoiak bait ziran bere gurasoak, ondo azi ta ezia izan zan aurtzarroan; gero, aurretik be ainbat karmeldar mixiolari ta Jainkoaren ots-egille zirala or-emen Mañari'ko semeak, eta Lon'ek be, gaztetxo zala, orrein aztarnaz ibilteko gogoia erakutsi eban.

Guraso ta anai-arreba maiteai lez Mañari bere jaioterri sotillari be agur esanik, Larra'ra, karmeldarren ikastetxera jo eban amesez gaiñezka. Emen asi eban eliz karrera; ementxe artu eban karmeldar jantzia 1932'an, Karmen bezperan, urrengo urtean uztaillaren 18'an profesa egiñik. Ondoren Markina'n urte bete, Iruña'n lenengo Filosofi urtea ta Gasteiz'en bigarrena; 1936'ko maiatzean ikasle mordo bat India'ra. berton doa Lon Arteaga be. An India'n, Alwaye'ko ikastetxean egiten ditu irugarren Filosofi urtea ta lau Teologi urteak, 1936'tik 1941'ra.

Eliz-karrera osotu ondoren, 1942-1-1'an artu eban Alwaye'ko Seminarioan bertan Filosofia erakusteko agiria. Sei urte egin zituan lanbide ontan; 1948'an, ba, udan, osasunez ez ebillela-ta ain ondo, bere erriratu zan, eta gero eragozpen asko jarri eutsoezan berriro India'ra biurtzeko. Urte orretako udazkenean Zornotza'ko karmeldar Ikastetxeko irakasle izendatu eben, latin, ingles eta abar erakutsirik. Gero Gasteiz'en, Altzo'n eta Eibar'en egon zan, eta azkenez ementxe Larrea'n bizi izan zan, ni nagusi ta bera menpeko, ni "Milla euskal olerki eder" liburuari azken orrazketak egiten nengoala. Euskaltzalea zan oso, eta olerkari; niri be, beraz, lan gotor ori osotzen lagundu eustan zerbait, kopiak ateraten batez be.

Probintziko Batzar nagusiak, 1954'an, ni Eibar'erako ta Aita Lontzo Peru'reko izentatu ginduzan. Ni Eibar'en iru urte beterik, Larra'ra ekarri ninduen barriro, eta emen jarraitzen dot gaur be; Aita Lontzo'k amar urte erre zituan Peru'n, Txokope'ko Gurutzeko Jon Deunaren Ikastetxeko zuzendari ta irakasle zala: lan ikaragarria egin eban Ikastetxe onetan, barruko ardureaz gaiñera erlejiñoa, iglesa ta Logika-Etika erakutsirik.

1964'an Zornotza'ko karmeldar Ikastetxean daukagu irakasle lenengo ta gero iru urtean bertako nagusi. Ondoren Markina'ra doa, eta ementxe, euskal arloan urte-mordoa egiñik, 1980-1-23'an il zan, goizeko iruretan. Urrengo egunean egin ziran aren illetak: Probintziko nagusiak, Felix Malaxetxebarria'k, berrogei bat karmeldar mezakok lagunduta, abestu eban illen mezea. Gure anai langille zintzoak merezi eban aiñako meza ederra.

Argi zan Aita Lon Arteaga. Eta borondate aundikoa; olantxe agertu zan beti bai India'ko Alwaye Seminarioan, bai Peru'n eta bai Probintziako komentuetan euki zituan karguetan. Zentzunez eta lojikaz jokutzen eban nun-nai ta

beti; eta besteak be, bere ingurukoek be, jokabide ortatik ibiltea nai izaten eban.

India'n egoala ondo ikasi eban inglesa; baita literatura arloan be. Txokope'n batez be, gogoz artu eban ikasketa ori, ta Irakasle titulua atera eban, ainbat azterketa ez ain errezak garaiturik, Cambridge Ikasgu Nagusitik.

Baiña munduan zear, aize-egoz dabillen ostoa antzera, joan-etorri asko egiña izan arren, Aita Lon beti agertu jakun euskaldun jator. Alderdi auxe zan berak maiteen ebana. Mañari'n jaiok zer geiago maite? Erri orren eta bartako atxeren indarra tinko josirik eroian, nainora joiala, barru-barruko muiñean. Maite eban euskal erria, maite eban euskera. "Bai atzerrian, bai Euskalerrian, agirian eukan Lon'ek, bere euskal nortasuna".

Zelan erakusten ete da euskal nortasuna? Nik —eta Aita Lon'ek— an naiz emen bizi, beti euki ditut neugaz euskerazko liburuak, neure aita zanak erakutsi eustanez. Neure pozetan eta atsekabetan eder izan jat orreititik zerbait irakurtea. Zergaitik? Jakin ez. Baiña olantxe da. One-la etxean ikasia ez da aaztuten; itz-egiteko ta idazteko erreztasun geiago lortu oi da. Aita Lon India'n bizi izan zan amar urtez; erbestean, irakasten bereak etziran izkuntzetan ain zuzen. Eta alan be ez jakon euskerea ondatu, bizi bizi eroian beragaz, mintzoz eta biotzez. India itxi ebanean, an Alwaye'ko seminarioko bere gelan agertzen dira, beste latin, erderaz, ingleseztan ango izkuntz-liburuen artean, euskerazko oneik be: Jautarkol, Txomin, Agirre, Azkue, Eguztitz, Olabide, Arree-Beitia, Barrenso ta abarren euskerazko idaztiak. Eta onain artean baita "Eusko Olerkiak" lau aleak be.

Euskeraz ondo ekian arren, ez eban asti geiegirik izan idazteko. Alan be, idatzi ebana gizonki biribilduta eskiñi euskun. Peru'ra joan aurretik, Larrea'n egoala, naiko idatzi eban "Karmen'go Amaren Egutegia"-n, "Karmel"-en eta Olerki"-n. Peru'n aurkitzen zala idatzi eban euskerazko alkar meza baten textua bertsotan, Aita Emiliano ta E. Ibagutxi apaizak musikaz ornidurik, garaiaretan asko zabaldu zana.

Azken urteotan, Markana'n egoala, ango liburutegi ta euskal idaztien zaindari, "Karmel"-en, Iruña'ko "Principe de Viana"-n eta "Olerki"-n, olerkiz eta prosaz naikoa eban. Eurotatik lanik ederrena, Aita Prai Bartolo'ri buruzkoa: argitalpen barri bat egiteko, azterketa bikaiña egin euskun aren lanetaz.

Izlari etzala berek aurtortu arren, txukun eta nasai berba egin oi eban pulpitutik be. Ba-ditu sermoi ederrak —Kirikiño'ren omenezko jaietan Mañari'n egiña, esatera-ko—, Andra Mariari ta Santuen jaietan egiñak, bederatziru-urenak, irurrenak, gogo-jardunak, erderaz, euskeraz eta ingleseztan egiñak.

Amaiera lez, bego emen Aita Nagusiak aren illetetan sana: "Meza Aukaristi au izan daitela gure Lonentzat omenaldia, otoi-ta ta agurra. Berau izan dogu fededun kristau osoa, karmeldar praille mixiolaria, euskaldun zintzoa ta idazlari bikaiña".

**Olerkari**

Benetako olerkaria genduan Aita Lon. Al eban guztietan ondo oi euskun koplaren bat. Berberak gertatu eban txorta bat il aurretxoan. "Bizitza-tantaxkak" izena ipiñi eutson beroni. 24 bat dira guztiz. Interesgarriagoak egiteko edo, noiz eta nun idatziak diran be, ba-diñosku.

Oneik dira: 1) **Josutxo loratan** (Markina, 1933); 2) **Utsalkeria** (Iruña, 1934); 3) **Izontzitxo** (Iruña, 1934); 4) **Zeruko Amari** (Gasteiz, 1935); 5) **Maitasun barria** (Alwaye, India, 1939); 6) **Biotz-lilia** (Alwaye, India, 1945); 7) **Nire arreba ta illobak argazkian** (Alwaye, India, 1947-7-2); 8) **Aurtzako basetxeari** (Mañaria, 1948); 9) **Negutxo'ren lilia** (Zornotza, 1949); 10) **Amari, bere egunean** (Alzo, 1952); 11) **Egia ete da?** (Larrea, 1953); 12) **Aita Santi Onaindia'ri** (Larrea, 1954-3-25); 13) **Belen eta Sagari-kutxa** (Arequipa, 1955-1-6); 14) **Eun mutiko** (Chocope, 1958); 15) **Urkiola** (Markina, 1973); 16) **Jaunaren lekuko** (Markina, 1973); 17) **Zure errailetan** (Markina, 1975-2-14); 18) **Gabon** (1977); 19) **Felix Ansola** (Markina, 1978); 20) **Te lucis ante terminum** (itzulpena); 21) **Christe, qui, splendor et diez** (itzulpena); 22) **Jesus, Redemptor saeculi** (itzulpena); 23) **Il-oge ondoan** (Thomas Hood'ena), eta 24) **Meza Deuna erriarentzat** (12 zatitan).

Gizonak ba-dau beste indar askoren artean indar berezi bat, arte-indarra, ekiñaren ekiñez indarragotu geinke; baita barriak sortu be. Egiatzko kreatzaille izan daiteke gizona. Edozenbat gauza daukaguz geure barruan eta inguruan. Begi-luze ta zorrotz izanik, landakoak eta geure barne zelaikoak jaso geinkez.

Gogora daigun I. Strawinsky'k diñoskun au: "Ezta sortzen alan-bearrean; gogartu, oar-erazo ta markatu egiten da gauza bat lau-lau, gero beronek guri adimena edo biotza dardarazo daiskun. Onetxek soilki goi-argitzen gaitu bear bada. Abere batek lurra azterkatu oi dau lurra, zer-edo-zeren billa; bardin dagi artista batek be, atsegin baten billa dabil. Aztertu barik ez da aurkitzen. Maitatzeko ez da indarrrik egiten; baiña maitatzeak ezagugera dau eskatzen, eta ezagutzeko nekatu, aztertu egin bear".

Esan onek badau bere mamiña. Aita Lon, esan dot, India'n ibilli zan mixiolari. Emen beronen olerki bat bakarrik aztertzeko, amabi urte ondoren etxeratu zanean, eder be eder begipe jarri jakon bere sorterrria, bere auzunea, bere gurasoen etxea. Barru guztia dardaratu jakon, olerki sentikor, bikain, edorto landua osoturik. "Aurtzako basetxeari" deritxona dozu. 18 estrofa daukaz, 6/6 egiña.

Amabi urte urrun egiñik etxeratzeak edozeiñi diñotsa zerbait, baiña edozeiñek ez daki barne-sentipenak bertsoz

adierazten. Aita Lon'ek, eta onela kantatzen leenengo aspaldian:

Amaika semeren kabi zar beroa,  
asaben asabak maitasun-izerdiz,  
eusko odil, atx eta aretxez jaso!  
Gorria teillatuz, zuria bekokiz.

Urrin ibilli da, Jaunaren mastian langille. Beretzat dau, ba, leenengo agurra. Agur bero samurra! Aul dator gorputzez, baiña bera ikustean, eguztiak jorik lilia lez, marduldu egiten da bere be. Aurtzaroko basetxe!, edertzat eban urrin egonik; baiña —begion lillura!— amesez baiño milla bider zara ederrago!

Zeugan txastau neban aurtzaro sorgiña,  
barrez ta jolasez, borborka euskeraz...  
—Oi, irudi-txori au giltzatu eziña!—  
Leenera doakit biotz-ego ikaraz.

Bertatik datorkio irudi illun bat barruko poza lausotzera: bera urrin zala, triskantza gogorra izan zan emen. Egalarari baltzak igaro ziran emendik. Bildurgarri ta arro, txistuz eta orruz, sua ta erio ereiñik amorruez; gaillur ta zelai odolez gorritzuta ziñan. Olerkariak saminki:

Gaztedirik gabe Aberri gaixoa...  
eta aretxik gabe mendi kiskalduak...  
ta odolik gabe Euskera gozoa...  
umezurtz iduri!... Betiko galduak!

Sartu da basetxe barrenera, txapela eskuan. Jauretze bat dirudi, eliza bat. Lotsa ta begirunea, beraz! Biotz-ezpanetan euskeraz otoitz.

Guraso urtetsuak oraindiña bertan,  
lantsu ta otoitsu; bular makurtuak  
lurrerantz begira biotzakgoietan.  
Bizitz-illuntzean ar begiz Goikuak!

Anai-arrebak agurtzen agurtzen dira maitekor. Eta zalapartaz jatorkozan illobak. Sukalde maiteko laratza be bai agurtzen dau. Onek diñotsa: "Agertu az noizbait, agertu az, mutil?" Etxeko ta inguru poz-bitsetan dagoz guztiak... Amazazpigarren estrofak onela diño:

Aurtzaro-basetxe, euskaldun basetxe!  
Zeran zaran ederra! Zein zaran gozoa!  
Aberri-gaztelu, Aberri-jauretze,  
zein zaran sendoa! Zein benetakoa!

Onakoxe olerkaria dogu Lon Arteaga, Mañari'ko seme leiala, urrin-bearrez ara-ona ibillita be, bere erria ta bere izkuntza benetan maite izan eta zaindu zituna.

AITA ONAINDUA

**ARPIDETZEKO TXARTELA**

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar .....  
..... kalean (auzoan) ..... zenbakian  
..... errian, ..... errialdean (probintzian)  
Arpidetzea ordaintzeko ..... diru-etxera (bankura) bialdu ordain-  
txartela, an daukadan ..... zenbakidun diru-kontura.

## KUWAITARRAK

Bagilla'ko azkenengo egunetan ona Bilbo'ra etorri ziran futbol jokatzeko kuwaitarrak, 82 mundialak zireala-ta. San Mames'eko futbol zelai katedralean Amurrio'ko eleiz nagusi baten txanburu dan nire lengusiñaren semeak lagunduta nengoan. Berari zor neutsozan laguntza mesede batzuk ordaintzeko kirol au ikustera deitu neutson ta sarrera emon. Talde kuwaitarrok Ingalanderrekoekin jokatzeko Ondo ala txarto? Ez nire senideak ez nik jakingo genduan askorik itaun oneri erantzuteko...

\* \* \*

Baiña entzuten genduan, kuwaitarrak ez ekialako edo ez indar andirik egiteko ta beraz gitxiago nekatzeko futbol joko asimasiako oinkada laburrezko ta joko-kanporaz erabillen.

Nortzuk irabazi eben? Jakiña ingalantarrek. Ta bigun ta erraz. Ez eutseen itxiten joko indartsu ta bizkorra egiten...

\* \* \*

An egon gintzazan aldi osoan euskerazko berbatxu bat entzun genduala uste dozue? Lotsagarri da esatea be... bapez.

Ez ei da Bilbo Euzkadi'ko Meka, ba emengo gizon batek asmau eban Euzkadi izena?

Egia. Alan eta gustiz be, Madrilen bertan egon ba-gintzan lez ez genduan entzuten euzkerarik.

Ta Mitxelena etorriko yaku esaten laster Bilbo'n entzungo dogula euskara. Badakigu euskara dala batua, ta batua sakabanatua da ta euskerearen eriotza.

Kuwaitarrak futbol ona ta indartsua egiten ez jakiñik be mundu zabaleko aberatzenak ei dira.

"Zer" aldizkari onen irakurleok zalangoa dan arein Aberria jakingo dabe. Baiña ez jake txarto etorriko gogoratzea Kuwait munduko erririk aberatsena dala.

\* \* \*

Eremuko are bero artean XXI gizaldiko ames zoragarri lilluraldi bat lez Kuwait lurralde aberatsenatariko Uriburu saltzarritz, burdiñaz ta leyarrez egindakoa da. Ogetabost urtean zear Ingalandarren Zaintzaritza'ko erri txiro Latorri eder, aberats bat egiña urteroko 5.000 mille dolar bakoitxarentzat (per kapita) Ypar Ameriketarek daukiezan baiño 8.000 dolar geiagokoa.

Kuwait Laterri sozialista ta sozialisten artean andiena ta dirudunena ei da.

Bere aberastasan andiak beste Arabiarren erriai lagunduten deutse.

Egipto'ri, Sudan'eri, Jordania'ri ta bere auzoko Irak'eri milloika dolar emoterañio.

Ango ondasunak ain, andiak izanez, uritar edo erritar batek gizarte-laguntza Suezia'tarrak baiño ohea artu lei.

Osagille-laguntza doan daukie baita irakaskintza be, Eskola Nagusiko maillataraño.

Kuwaitar buru argiak Unibersitate Eskola Nagusiko irakasteak berton edo Europa'n, Ypar-Amerika'n, edozein munduko Aberria'n jarraitu leikiez.

\* \* \*

Urrutizkin, telefonoagaitik ez dautse kenduten zentimorik.

Etxeak egiteko dirubide arloetan sartzeko maillegoa moskin barik emoten yake.

Sendi-famili erdi maillako baten irabazkiak 19.000 dolar dira (milloi bat laurleko baiño geiago).

Eta iñori ez jako kenduten zergarik.

Kuwait'en iru norbaitentzat berebil bat ta aize-egurats egokiturako zazpi tresna dagoz. Eta lurralde beroetako etxe-barruetan egurats giro-aro, ez otza, ez beroa.

\* \* \*

Bermeo ondoko itxasoetan, Bizkai-barruan, gaslurrun aberatzpide aundikoa ei-dogu.

Ainbeste txiroikeri zoritxar artean Jainkoak onetsi gura gaituela dirudi.

Euzkadi'rentzat ondo etorriko da.

Baiña Jaurlaritzak jakin bear dau ondasunak banandutean norbere premiñetatik asi bear dala, kristiñau esakunak diñoanez: "maitasun eratua norbere buruaren premiñetatik asten da".

Bizkai'ko Etxe andiren tellatuak itozuraz beterik dagoz.

Or daukoguz ibai-errekak, Nerbion'go itxaz-adar loikeri lotsagarriz beteta; Bilbo'ko eguratsa ikaragarrizko loke-ritz atsituta lorrinduta ta illunduta, motsitu ta itsusitua, bere kaleetako gurdiak ezin ibilliz, lurpeko bultzia eginbarik ta antza, erabide dirutza eskuratu zanetik egiteko asmo barik ezta aitatu be egin bear danik. Araba'ko Emilio Guevara Jaunak Jelkide Ordezkarri Orokorraren jarraibidea begi-aurrean izan bear dogu. Norberaren eskualdeko Foruak, Aldundegia ta Edestiko Lurraldeak, Jauraritza baiño lenago dira.

## BILBO'TIK LAPONIA TA KAMANDU'RA

Ez dozue entzun aurtengo lenengo ileetan Bilbo'tik urten, ta bide luze ta polit egin, eta Laponia ta Kamanduraño eldu gaitekezela? Ta ez deritxazue zelan egiten dan bide ori jakingarri izango dala? Bai orixe, ta orretara noia, zeuon jakingura ori betetera.

Baiña lenago esango deutzuet nor dan ibillaldi orreik eratu ta antolatzen dituana. Berau da Bilbo'tar eta euskotar ibiltari Edorta Aiarzagoena.

Benetan izen ta abizen euskaldunak: Aiarzagoena 29 urteko gizon gazte artegatsu bat dogu.

Berak bere izakera begiratu ta azterturik, diñosku: "Erdi bermeotar ikusten naz ta ez dakit ze mundu alderdian geiago bizi izan nazan".

Munduan zear ibilkari dabil amaika urtez bizitzako eskola nagusian edo unibersidadean, bere leia ta zaletasunak diranak etnografia ta antropolojia ikasten. Bere kontu kilometroetan, Sahara, Persia ta Afghano'ko eremuetatik sarraldiak agertzen dira, bidebatez erri euretako biztanleak ezautzeko.

Baita ibilli izan da Cachemira, Hindu-Kuch, Nepal'ko lurraldeetan zear ta erdi ta ipar Aprika'ko Laterrietan, Kamerún, Niger, Senegal eta beste etabar luze laterrietan.

\* \* \*

Diru gauzetan larri dabillega-eta, gure Edorta txango ibilketa oneik tresnatu ta antolatzen asi da.

Txango ibillaldiak bide kondairazko ta etnolojizkoak baita kultural jakingarriak izango dira.

Datorren Dagonilla'n itxaspeko txango Aprika'ko Atlantik basterretatik Sali egoaldera egiteko asmoa eidade.

Edozein tokietara eldu leitekez urietara ezik, ta alegiñak egin izadiaren ondoan geienez egon berau aztertu ta obeto ikusteko.

Edorta'k bakarrik txangoaren azken muga erakutsi, zantzutu ta izendatuko dau, baiña talde lagunuen aukeran norabidea itziaz.

Zuzendari lez agertuko da erantzukizun legezko jasorran, esaterako zergategi igarotetan, ta ez bearretan itxasontzi edo egazkiñak erabilli bear diranean. Zalantza barik, alkar bizikera au txango ibilketa ezperientzien jakingarrietariko izango da.

Taldea egingo da alkar ezagutu barik eta danen artean erabagiak artuko dira.

\* \* \*

Etxe bat txirringolan. Ibilketak egingo dira izen onegaz "Ostadar" (Arco Iris). Izen onek gogoratzen deusku, orain

urteak Edorta'k bear egin ebala mekanikarilez Bermeo'ko itxas-ontzi baten.

Berebil andi talde berariz tresnatuakaz bideak igaroko dira.

Eziñean, moto-txirringa, txalupak, zaldiak tokietako mendiztiak (orografiak) eskatu edo aginduten dabenak.

Berebil andi onek lau tonelada eroan leikez eta bultzakari bat amabi abialdi ta iru galga deuko.

\* \* \*

220 voltioko ernaitazaille bide batekin tximist indarrak onniduten da.

Eskaratz edo subetea gas eta 220'ko oztegi, ur parrata garbialdia, etxe danetarako tximista tresnak, 500 litro eukiteko ur-ontzia, komune alda-erreza, amalau bidegillentzat oe.

Onelan berebil au txirringol etxe egiten da.

Gure asmoa, o-rратиño, asti al danik geienez, gurditik kanpoan bizitza egitea da.

Oyai-itza gustiz andi bat dabe kanpoan ipinteko.

Sabai-berebil-goian aulki bi zortzirentzat. Bidelariak gaiñera berarizko giza-babesak eukiten dabez. "Zeure gogoz ta aukeraz, edozein munduko tokietan, bear-dozun lege-gizon bat ipinten deutzue, ta geixotuten ba-zara etxe-koak dakartzuez. Bidea, aurrerago jarraitu gura izan ezkerro nik ezin ba dot, besteen berebil batek eroango zaitu zeuk gura dozun tokietara diñosku gartsuz txangoen eragilleak.

Bizkaitar Aiarzagoena'tar Edorta'k arakatu ta ikustatu dau berebilla Belaua'n makiñadun gurgi andi au, sartuaz basoetara ta gatx-zail sarbide lurretara, ta azterketak betegarri agertu ei-dira...

\* \* \*

Dana dago gertuta ibilketa txangoa asi daiten iparburuko obo inguruetan Laponia bideko lur-adarretik egingo da txango bat Bagilla, Garagarrila'n Dagonilla'n itxaspeko txangoa ta, il onetako bigarren amabostean Alpes ta "jatorren bidea".

Urtearen azken iruillekoetan asmo geien gurarikoa, Bilbo-Katmandú ibillaldia bilbotar ikuskariak urtero egin gura dauana. Orain joan-etorri bakoitzean amar-ka txangolari taldea bete egin bear da.

LETONA'K



EUSKEREAREN ARERIOAK

Euskereak arerioak daukazala sarri-askotan entzuten gabiltz, ta batzuen ustez, euskeraz ez egitea euskerarentzat gauzarik txarrena da.

Egia ete da ori?

Esaera orren barruan ez ete dago beste asmo oker edo maltzurkeriren bat?...

Gure erantzuna auxe da: egi erdia dala edo egi arrunt azalezkoak dirala. Eta ori diñosguna bizkaitarra izan ezker, esakun arrunt au irain negargarria biurtuten da.

Zer ba?... Iñok egiten dauz Bizkaian, Euzkerazaleak eta aldizkari "Zer" onek izan ezik, alegiñak bizkaitar giza-joai amak irakatsi eutsoen euren Euskera ederra aitzu ez dagien?...

Geure diruaz dabillen Euskal Teleikuskiañak geure Euskerea eginbearrean, guk iñoz egingo ez dogun izkuntza egiten dausku.

Bakarrik noizipein geure euskerazko ondarrak ta ogi apurrak.

Baiña arauz ta egitamuz eta pelikuletan iñoz be ez. Ta ori ez dago ondo. Oro da zuzeneza. Ori lapurkeri, maltzuleri ta ixekarik andiena.

\* \* \*

Gero, ikastoletan, batua... Batuagaz Bizkaia'n iges egiten dau etxeetatik Euskereak. Orregatiño, erantzungo dauztazue, or dira iru edo lau ikastola Bizkaieraz diarduenak... Bai zera. Orreik be atxe zitala sartu dabenetik, adarrak darabillez ama lenago ilteko.

Gero, joan zaitex Bizkaitar bateri esatera: Euskeraren alde gauzarik andiena, onena euskeraz egitea da. Berak zio osoz erantzungo deutsu: "Zelan arraio egingo dot ba, zuk ez badozu egiten ezer niri aitzu ez dakidan neure Euzkerea?"

Bai gizonok, argi ta garbi esan bear dogu. Euzkerea'ren areriorik andienak dira: Lenengo ta batez be batua: orra or Euzkerea astiro, astiro iruntziten dagoana.

Kerexeta'k esan edo idatzi eban: "Franko'ren berrogei urteko nagusitzar iguingarriak baiño batuak kalte geiago egiten deutso Euzkereari".

Gero Telebisa. Au geure diruaz geuri Euzkerea kenduten dabil, lotsa barik.

Irugarren arerio denganiñoa: batuak ikastoletan umeai aldentuten dautse gogoa euskeraz ikasteko ta etxean amatau euskera garra.

Onez ganera, batu-zaleen asmoa, aurten omenaldi batean Derio'ko Labayru'n agerturikoa, ain zuzen, ez gixtiagoz, ez geiagoz auxe da: sarkaldekoko Euzkerea il (erail) sorkaldekoko bizi daieten". Orrek esan gura dau guretzat bizkaitarrentzat gure idazle ospatsu Mogel, Azkue, On Domingo Agirre, Kirikiño, Enbeita (Urretxin-do); Akesolo aitzu bear doguzala.

Gauza benetan izugarria!

Ori izango litzake Gaztelarrentzat Cervantes, Calderon, Lope de Vega, Quevedo, Machado eta Unamuno aizutea lez.

\* \* \*

Baiña esan dogunari indarra emoteko Bir-egingo dot orain iru urte dirala "Deia"n agertua. **Bizkaitarrok Bizkaieraz.** "Il onen 19'an Retolaza, Jabi Uriarte eta A. Zubikaraik Etxenike jaunari ikustaldi bat egin eutsoen.

Arazo larria eroen esku artean.

Adibide zeattetikari ziran. Non eta Muxikan, eta Bizkaiko edozein erritan bardintsu kontizu, eskolumeak erderan aukera guztiak izaten ditu, baiña Bizkaieratik sakonduz euskaldunalgo egiten joatea egiña da itxuraz. Alan emoten dau.

Euskerarik emoten daberen leketan batua emoten dautse umeai, eta begira zelangoak jatorkozan gañera: "Liburuak sasira jausi jatazan" esaten oituta dagoenak ori bera onelan esan bear dau". "Liburuak sasira erori zitzaillikidan".

Umearen bidea errezerakoa, erdera utsean esan, eta kito".

Eta Latiegi jaunak Etxenike'ri jaurti eutson arpegira: "Bizkaitarren diruarekin Bizkaiera ilten diarduzu".

EGILUZE'K

ZUGATZ AMES SOTZAILLEAK

Baditut nik baratzen zugatz mordotxoak, euretatik lau dira geien maitatuak.

Gazteroko gorantzi sortuten daustenak, nire biotz barruan bai dira kutunak.

Euren azpin jarririk gazte maite-miñak, beteten ditu goxoz oldozmen guztiak.

Une zoragarriak an dira sortuak, nire bizi pitin bat poztuten dabena.

Pago, aritz, sagarra eta gaztaiñondo, lau dira zugatz arreik berezi sokondon, guztiz atsegingarri euskaldun guztinko.

PAGONDOA

Pago eder zurizka, zer diñostazu zuk? ortxe ikusi nintun gaztetxo nintzala, eskillaso abiak ebela maitasun.

Odolgi fin biguna egon zurepean, bertan etzunik nongon inguru-begira poz eta ezitan.

ARITZ ONDOA

Zelako tantai luze!, zure adarretan tantairik luzenean bidegarro kantan, kantari zan zolia, goiz eta arratsetan. Zure ezkur guriak txarrin janari zan, eurak loditurikan goxo buskantzetan.

# IRAUPENAREN EREDU

(Arturo Intxausti)

Gizonaren lan eta ekintzetan iraupena da bearrezkoe-na. Lan bateri asiera emon eta arin aspertuteak ondoren on gitxi emoten dautsa, bai ekintzari bai ta gizadiari.

Asko dira bai ezkor zer egin bat eskuetan artzen dabe-nak, baiña eroapenik ezak, bide erdian porrot egiñik itxi-ten dau dana.

Antxiñako esaerak diñon lez: zaldi gordiñaren asiera dauka orrek, baiña idi otzan ta eskurakoiaren geldiketa, azkenean ezer lortu ez.

Ez olakorik Arturo Intxausti ereslariagan.

Gizon onek (Begoñan jaioa bera) aurten 90 urte bete-ko ditu.

Ereslari trebea, ezpaibarik euskal erri ta inguru errita-koetatik onenatarikoa.

Urte luzeetan Bilboko eskoletako musikaren arduradu-na; Bilboko "La sociedad Coral" abesbatzeren zuzendaria; Konserbatorioko irakaslea etab. baiña, batez bere San Anton parrokiko orgaño jotzaille lez aurten bote ditu 60 urte (diamant ezteguak) Zarsaritu jubilatua izan arren emen jarraitzen dau ernai ta zintzo, egunero, emengo eliz-kizunak bere trebetasunagaz, gazte bezela indartu, ornitu ta osotuten, Ereslari on bat eliz liturgiaren erdia baiño geiago da. Gure Intxausti ez danean, emengo elizkizunak berakada aundia egingo dabe.

Jaunak ez al dau gurako emendik urte luzeetan bera eroaterik.

Intxausti, Jauna, ereslari bigun eta sentikorra da, ain zuzen bere.

Elizgizon eta beste eliztarren belarriak ondoegi ez dabizanean, arin-arin zuzenduten ditu bere orgañoagaz.

Abestien bitartean, une askerik ba dago, abesti orren gaiari jarraituz bere beretik sekulako soiñu aldiak emoten daukuz.

Neuk beronek eta beste askok bere edertasun ta bigun-tasunak eraginda begiak malkoz bustirik eukiten ditugu.

Orraiñokoa da bere trebetasun ta biguntasuna!

Musika idazle on ona dogu D. Arturo.

Berak idatziak ditu ainbat meza, nai euskeraz, nai lati-ñez; eliz abesti ugariak dira berak egiñak; beste sei gabon abesti bigun eta atsegintsuak be argitaldituk ditu; ainbat abesti Abesbatzak abestuteko erakoak be bereak dira; ere-si txapelketa ugarietan maiko edo epaille izana da.

Uts bat dauka Intxausti jaunak: apalegi izatea.

Bere musika ederra danez geiago ta geiago idatzi bear eban, baiña berak uste dau bere musika ez dala aiiñ ona, on ona izanik, eta bere apaltasunean bultza egin bear iako geiago idatzi dagian, batez ore berak daukan euskal kutsu-ko eresi ederrean.

Berak egindako lan polit bat, oso ezaguna da Bizkai gutzian: Begoñako Andra Mariaren ereserkia (BEGONA-KO ANDRA MARI; BIZKAIKO ZAINDARI asiera dauana) euskal kutsuko ereserki erraz eta ederra.

Musikalari au Guridi, Zubizarreta eta beste edeslari aundien lagun eta tajukoa da.

\* \* \*

Omenaldi bat egingo iako laster parroki onetan, baña berari zor iakon aiiñakoa ez. Zenbat orgaño jote Jauna goraltzeko; zenbateri musika erakutsi; zenbat aolku ikas-leai musika bide-etan; zenbat ereslari on ortik zear berak zuzenduak etab!!!! millaka omen aldiak berari zor iakoz.

Gutxi ordaindu iako bere lan ikaragarria, gizon, ta ereslari gorenko oneri.

Jaunak ordainduko dau eta guk esker ona agertzen dautsagu biotz biotzez.

Etorri beitez ain eresi zale dan euskal errira orgaño jotzaille ugari ta onak, erriaren ta bai elizaren edergarri.

ZORIONAK, ARTURO, TA IRAUN EUN URTE-TANANO BEINTZAT, OSASUNTSU.

GALLASTEGI TAR KAULDI

## SAGARRONDOA

Zure adar zarretan  
sagar zuri gorri,  
usaintsuak dira bai  
antxingo antzetan.  
Sagar orlegiakaz  
sagardo eiten zan,  
bertako, ardu oriz  
moskortzerik etzan.

## INTXAUR-ONDOA

Intxaur-ondo maitea  
ondiño or zagoz?  
gogoratzen zara zelan  
goizaldetxo oron  
elduten nintzan orra  
artu naiz arinka.  
Zugandik jausten ziran  
intxaur oskol asko?

## AZKENEZ

Al dodan guztietan  
urreratzen naz ni  
zuen ondori jarri,  
antxe luze luzean  
badot nik amesik  
oraingo egunetan  
au zori benetan.

GALLASTEGI K

## ZUGATZAK

**Mostaza** (Lukas 17, 6)

Si tuièrais fe como un grano de **mostaza**.

Lei: Baldin fede bazindute **mustarda** bihi bat den bezembat.

Duv: **Mustarda** pikorraren bezembateko sinhestea bazindute.

Ol: **Yeben**-azia bezainbateko siñeskuntza ba'zenute.

E-B: **Ziape**-azia aiñako sinismena ba'zeukee.

**Caña** (Mateo 12, 20)

La **caña** cascada no la quebrará.

Lei: **Kanabera** zarthatua ez du xehaturen.

Duv: **Khanabera** kraskatua ez du hautsirenen.

Ol: **Seska** irrikatua ez du puskatuko.

E-B: Ez dau ausiko **kaiñabera** brintzatua.

**Hisopo** (Joan 19, 29)

Sujetaron a una rama de **hisopo** una esponja empapada en vinagre.

Lei: Eta hek bethe zezaten spongia bat binagrez, eta **hissopoaren** inguruan ezarririk.

Duv: **hisopozko** makhila baten muthurrean xuxenduri esponja bat binagrez asea.

Ol: Eta oragun bat artan (ozpiñetan) busti ta **seska**-erpiñean ezarririk.

E-B: Eta belaki bat ozpiñetan bustirik **isopo**-adar baten lotuta.

b) **Hisopo** (Ebertarrai 9, 19)

Lei: Hyssopa.

Duv: hisopo.

Ol: Itzebelar.

E-B: Isopu.

**Espino** (Lukas 6, 44)

No se recogen higos de los **espinos**.

Lei: Ezen **elhorrietarik** eztute biltzen fikorik.

Duv: **Elhorrietarik** alabainan ez da pikorik biltzen.

Ol: **Elorritik** ez bait-du iñork pikorik artzen.

E-B: **Elorrietatik** ez da pikorik batzen.

**Espina** (Markos 15, 17)

...y, trenzando una corona de **espinas**, se la ciñen.

Lei: Eta inguru ezar ziezoten buruan **elhorri** plegatuzko koroa bat.

Duv: Eta **elhorriz** khoro bat bihurrikaturik, ezartzen diote buruan.

Ol: Eta buruan **arantzaz** eyotako buruntza bat ezarri zioten.

E-B: Eta, **arantzazko** koroa bat eginda, buruan ezarten dautsoe.

**Zarza** (Markos 12, 26)

¿No habéis leído en el libro de Moisés, en lo de la **zarza**?

Lei: Eztuzue irakurri Moysesen liburuan, nola **berroan**.

Duv: Ez duzue Moysesen liburuan irakurtu, nola... **sasiaren** erditik erranez.

Ol: Ez al-duzute Moxe'ren idaztian irakurri **laparretik** esan ziona.

E-B: Ez dozue irakurri Moises'en liburuan, **sasiko** atal aretan.

**Cardo, abrojo** (Mateo 7, 16)

¿Acaso se recogen uvas de los espinos o higos de los **abrojos**?

Lei: Ala biltzen duté elhorrietarik mahatsik, edo **karduetarik** fikorik?

Duv: Elhorrietarik biltzen othe dire mahatsak, edo **lapharretarik** pikoak?

Ol: Elorritik maatsak, edo **laparretik** pikoak biltzen ote-dira?

E-B: Elorritik maatsak, edo **sasitik** pikoak batzen ete-dira?

**Hierba** (Joan 6, 10)

Habia en el lugar mucha hierba.

Lei: Eta zen **belhar** handi leku hartan.

Duv: Bada, toki hartan ederra zen **belharra**.

Ol: Toki ua **belartsua** zan gero.

E-B: Toki aretan **bedarra** ugari zan.

**Heno** (Korinto'koai 1.<sup>a</sup>, 3, 12)

Y si uno construye sobre este cimiento con oro, plata, piedras preciosas, madera, **heno**, paja.

Lei: Eta baldin nehork edifikatzen badu fundament hunen gainean urrhe, zilhar, harri preziatu, egur, **belhar**, lasto.

Duv: Baldin norbaitek asentu horren gainean altxatzean, ezartzen badu urhe, zilhar, harri balios, zur, **belhar**, edo lasto.

Ol: Azpi onen gañean zerbait iñork urrez, zillarrez, arri ederrez, ala zurez, **belarrez** eta lastoz ba'leraika.

E-B: Oiñarri onen gañean norbaitek zerbait urrez, zidarrerez, arri ederrez, zurez, **albitzez** edo lastoz eragiten ba'dau.

**Flor** (Pedro'ren 1.<sup>a</sup>, 1, 24)

Se seca la hierba y cae la **flor**.

- Lei: Eyhartu da belharra, eta aren **lilia** erori.  
 Duv: Eta ihartu de belharra eta erortzen **lorea**.  
 Ol: Bedarra igartzen da, **lorea** yalkitzen.  
 E-B: Bedarra igartu da ta **lorea** jausi egiten da.

**Lirio** (Lukas 12, 27)

Fijaos en los **lirios**.

- Lei: Konsidera itzazue **floreak**.  
 Duv: Begira **liliei**.  
 Ol: Begira **liliak**.  
 E-B: Begira **lirioak**.

**Rama** (Mateo 21, 8)

Otros cortaban **ramas** de los árboles y las tendían por el camino.

- Lei: Eta berzek **adarrak** pikkatzen zituzten arboretarik, eta bidean hedatzen.  
 Duv: Bertze batzuek aldiz, arboletarik **adarrak** hausten, eta bidera arthikitzen zituzten.  
 Ol: Bestetzuk, berriz, zugatzetatik **adarrak** ebakita bidean edatzen zituten.  
 E-B: Beste batzuek arboletako **adarrak** ebagi ta bidean zear zabaltzen ebezan.

**Rama de palmera** (Joan 12, 13)

Tomaron **ramas de palmera**.

- Lei: Har zitaten **palma adarrak**.  
 Duv: **Palma adarrak** hartu zituzten.  
 Ol: **Palma-adarrak** artu ta...  
 E-B: **Palma-adarrak** artuta.

**Hoja** (Mateo 21, 19)

Pero (Jesús) no encontró en ella (en la higuera) más que hojas.

- Lei: Etzezan deus hartan eriden **hostorik** baizen.  
 Duv: Eta etzuen hartan deusere aurkhitu **hostorik** baizik.  
 Ol: Ta **ost oak** besterik artan ez zun idoro.  
 E-B: Baiña **orriak** baiño ez eutsazan aurkitu.

**Follaje, ramas** (Markos 11, 8)

Muchos extendieron sus mantos por el camino; otros, **follaje** cortado de los campos.

- Lei: Eta anhitzek beren abillamenduak heda zituzten bidean: eta berzek **adarrak** ebakiten zituzten arboretarik eta bidean hedatzen.  
 Duv: Hainitzek berriz, bidearen gainean hedatu zituzten beren soinekoak; bertze batzuek aldiz, hausten zituzten arbola **hostoilak** eta bidean hedatzen zituzten.  
 Ol: Ainitzek ere bidean beren txabuxak yaurtzen zituzten; bestetzuk, berriz, **ostollak** ladetatik ebaki ta bidegañean barreyatzen zituten.  
**Estok** euren soinagaiñekoak zabaldu ebezan

bidean zear; beste batzuek landetan ebagitako **abarrak**.

**Raíz** (Mateo 3, 10)

Ya está el hacha puesta a la **raíz** de los árboles.

- Lei: Bada ia aizkora arboren **errora** ezarria da.  
 Duv: Ezen jadanik haizkora arbolaren **erroan** ezarria da.  
 Ol: Aizkora onezkero zugatz-**erroari** ezarrita baitdago.  
 E-B: Onezkero, aizkorea arboletako **zusterrari** ezarrita dago.

**Savia** (Erroma'koai 11, 17)

Mientras tú —olivo silvestre— fuiste injertado entre ellas, y partícipe de la raíz y de la **savia** del olivo.

- Lei: Eta hi bassa oliba inzelarik, xarthatu izan bahaiz hayen orde, eta oliba erroan eta **urinean** partizipant egin bahaiz.  
 Ol: Ta basoliondo ziñan ori, ayen utsuneetan txertatuta, oliondoren sustraitik ta **goz oak** bizi ba'zera.  
 E-B: Eta zu, basoriondo zintzazan ori, arein utsunetan mentatua izan ba'zara, eta basoriondoaren zusteretik igoten dan **guriñaz** bizi ba'zara.

**Madera, heno ta paja** (Korinto'koai 1.<sup>a</sup>, 3, 12)

Con oro, plata, piedras preciosas, **madera, heno, paja**.

- Lei: urrhe, zilhar, harri preziatu, **egur, belhar, lasto**.  
 Duv: urhe, zilhar, harri balios, **zur, belhar, edo lasto**.  
 Ol: urrez, zillarrez, arri ederrez, ala **zurez, belarrez** eta **lastoz**.  
 E-B: urrez, zidarrez, arri ederrez, **zurez, albitzez, edo lastoz**.

**Leño** (Lukas 23, 31)

Porque si en el **leño** verde hacen esto, en el seco ¿qué se hará?

- Lei: Ezen baldin **egur** ezean gauza hauk egiten badituzte, eyharrean zer eginen da?  
 Duv: Alabainan hunela egiten badiote **egur** hezeari, zer etzayo eginen iharrari?  
 Ol: **Egur** ezean au yazo ezkerro, igarrean zer yazoko ote-da?  
 E-B: Izan be, **egur** bizian (berdean) au egiten ba'dabe, igarrean zer egingo ete-da?

**Rama seca** (Apostoluen Egiñak 28, 3)

Pablo reunió un poco de **ramaje** y lo echó al fuego.

- Lei: Bildu zuenean bada Paulok zembait **sirmentu** appur, eta ezarri zituenean sura.  
 Duv: Paulok berriz, ahien **zamaxka** bat bildu eta suan ezarririk.  
 Ol: Paul'ek **adaki** batzu bildu zitun, ta sutara botatzean.  
 E-B: Paulo'k, **abar** igar batzuk batu ta sutara jaurti ebazan.

KEREXETA

**ARDAOAK ON EGIN**

Ni mutiko koskorra nintzanean, nire errian gizon urtetsu bat bizi zan.

Amaikatxo aldiz erriko enparantzan ikusi genduan jesarrita.

Beste batzutan tabernatik tabernara bazterretatik bazterretara joiala nabaritzen genduan.

Ardao-zalea zan eta orregaitik geienetan mozkorturik ebillen.

Astiro-astiro, gero ta osasun gitxiago eukan.

Ordia zan. Orrelantxe gaisorik geratu zan.

Guztietariko osagaiak dastatu ebazan.

Zertarako?

Ezertarako be ez. Osasunez geroago ta txarrago joian, alan eta be, oiturea ebanegun baten ardao-bonbil bat artu eban eta dangada ederra emon eutson.

Andik gauerdira edo, obeto egoan.

Alan barriro osasuna etorri jakon, ardao au bitarteko zala.

Gauza itzala, baiña egizkoa! Ziurrik asko.

**OSASUNA**

Jazokizun au Bilbo'n bertan urte asko ez dirala gertaturikoa da.

Gizon bat beti egoan txarto, beti osagaiak artzen eta gogarte txarraz bizi zan.

Geroago ta txarrago, negua eldu zanean batez be, Otzagaitik? Nok daki?

Egun baten, bere erriko osagilleagana joan zan. Bere aurrean jesarri zan eta esan eutsozan bere naigabeak. Itzallak benetan!

Egiz, gaisorik egoan! Urdailleko ta buruko min ikaragarriak jasan-bearrean!

Osagilleak arretaz entzun eutson. Eta geiago barik esan eutson: Ongoi ibilli gura ba'dozu, bizarra ta surpekoa kendu bear dozuz.

Zutundu zan bera eta alde egin eban.

Gure gizontxua goibel samar geratu zan eta astiro-astiro etxeratu zan, eta geiago oldoztu barik surpekoa ta bizarra kendu ebazan.

Biamonean buruko mun gitxiago eukan eta astearen amairako ezer be ez!

Ikusten dan lez, miñen zioak surpekoa ta bizarra ziran, edo bizarra zaintzeko ukendua ta margozko isurkia.

JOSEBA ISATSDUN

**BERAKATZ-USAIÑA**

Margotzaille batek ikasle naikoa alper bat eukan eta lan-egun baten ugazabak ikasleari auxe esan eutson: Artu egizu zotz luze bat eta or marmitean dagoan margo-urari eragin ondo.

Asi zan ikasle alperra eragin eta eragin, baiña arin gogaitu zan eta esan eutson bere ugazabari: Noz-arte ibilli bear naz onelan eragiten?

—Margo-urak berakatz usaiña artu arte!

Ikasleak sarritan usain egiten eutson, baiña ez eukan iñoz berakatz-usaiñik. Orduan, ugazaba alboan egoan baten, etxe-barrura joan eta berakatz-atal bat artu eta zati-zati egin eta margo-uretara bota eban, Orduan bai, ba-eukan berakatz-usaiña eta esan eutson ugazabari: —Ba —dauko berakatz usaiña!

Urreratu zan eta Olakorik! Benetan! Berakatz usaiña eukan. Baiña ugazaba zurra be ba-zan-eta, esan eutson: —Ederto! Lanik erdia egin dozu! Orain beste alderantza eragin berakatz usaiña kendu arte!

**TRANBIA TA EMAKUMEA**

Lekaide-etxe baten lekaide zar eta santu bat bizi zan otoitz eta otoitz.

Gaiso aldi larri batera eldu zanean bere nagusiak auxe esan eutson: Zuk zeure bizitzan neke asko izan dozuz eta pozaldi gitxi. Orain, il aurrean, eskatu egizu poz-aldi bat, zeuk nai dozuna, eta emongo jatzu.

Ez ekian lekaide gizajoak zer eskatu, baiña arako baten auxe etorri jakon burura eta bereala esan eutson nagusiarri: —Aita, gauza bi dagoz neure bizitzan iñoz ikusi ez dodazanak, emakumea ta tranbia. Il orduko bietatik bat beintzat ikusi gura neuke.

Lekaideak batzarra egin eben eta tranbia ekartea eziña zala-ta, emakume bat ekarri eutsoen aurrera: Ona emen, esan eutsoen, zure guraria beteteko eskatu dozuna!

Eta lekaide gaisoak esan eban: Jaugoikoari Eskerrak! Azkenean ikusi al izan dot tranbi bat!



**BIZKAIEREAREN II ASTEA**

**TOKIA:** Eskolapioen Ikastetxean  
Errekalde'ren Ibiltegian, 19  
**EGUNAK:** Orrillaren 6'tik 10'era.  
**Ordua:** 8'retan

**IZLARIAK ETA GAIAK**

**ORRILLAREN 6'AN: BIZKAI'KO FORUA EUSKÉRAZ**

- Forua zer dan.
- Gauzarik arrigarrienak.
- Zergaitik erderaz batzarrak eta foru idatzia.
- Nondik euskeratzeko zailtasuna.
- Gure liburuaren kondairatxua.
- Zergaitik bizkaieraz.

PUXANA'TAR PEDRO'K

\* \* \*

**ORRILLAREN 7'AN: JOSKERIA BIZKAI'KO EUSKALKIAN ETA BESTETAN**

- Idazle zarren jokabidea onetan. Zergaitik.
- J. A. Mogel'en joskerea Peru Abarka'n.
- Gaurko jokabideak joskera-arloan.

AREJITA'TAR ADOLFO'K

\* \* \*

**ORRILLAREN 8'AN: ELERTI-IKASKETARAKO LORATEGIAK**

- Zer dan lorategia.
- Lorategian kondaira.
- Non eta zelan aurkitu ta aukeratu idaz-zatiak.
- Lenengo lorategiak izan eban ondorena.
- Bizkai'ko Idazleak liburuaren ondorena.
- Elerti-ikasketak gaur eta lenago.

ETXENAGUSIA'TAR KARMELO'K

\*\*\*

**ORRILLAREN 9'AN: BIZKAIEREAREN LUTELESTIA**

- Euskerearen zabaltasuna kondairan.
- Estrabon'en jakingarriak eta euskalkiak.
- Bizkaieria egin zan tokiak.
- Bizkaieria egiten dan tokiak.
- Euskaldun barriak eta bizkaieria.
- Non eta zergaitik galtzen dan bizkaieria.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK

\*\*\*

**ORRILLAREN 10'EAN: IKASTOLAK BIZKAIA'N**

- Kondaira laburra: Noz eta non izan diran.
- Lenengo urteetako giroa ta gaurkoa.
- Eleizea ta Bizkai'ko Ikastolak.
- Gurasoak eta Bizkai'ko Ikastolak.
- Dirua ta gure ikastolak.
- Bizkai'ko Ikastolak eta Ikastegi erdeldunak.

BERROJALBIZ'TAR JULIA'K

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

# Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,  
otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,  
barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,  
batez be, emoneko berba lez daroan  
Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.  
Itxasoaren oldarra gelditzen,  
gizonaren neurribako  
alegiña:

**BIZKAIKO**  
AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS  
**VIZCAINA**

**Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.**